


## II. ATALA ERRAMUN BAXOKEN OMENEZKO AITORTZAK

>>>



### ERRAMUN BAXOKI OMENALDIA QUEBECETIK

**Richard Y. Bourhis**

*Psikologia Departamentua*

*Quebeceko Unibertsitatea Montrealen (UQAM),*

*Zuzendaria, Montrealgo Unibertsitateetako Ikerketa Etnikoen Zentroa (CEETUM)*

*Montrealgo Unibertsitatea, Quebec, Kanada*

Helbide elektronikoa: [bourhis.richard@uqam.ca](mailto:bourhis.richard@uqam.ca)

Atsegin handia da **Erramun Baxoki** hitz gutxi batzuk eskaintzea omenaldi modura. Izan ere, hamarkadetan zehar irmotasunez eta gogotsu jardun du euskararen eta Euskal Herriko kulturaren alde lanean. Erramun Baxokek soziolinguistikako doktoretza egin zuen Lavalgo Unibertsitatean, eta, CIRALeko kideekin batera, elebitasunari buruz ikertzen jardun zuen han. Quebecen egin zituen egonaldietan, Erramun Baxok liluratuta geratu zen probintzian frantsesaren aldeko hizkuntza-plangintzak aurrera eraman ahal izateko ikerketa soziolinguistikoak egiteko ohitura handia zegoela ikusita. 1977. urtean, *Parti Québécois* alderdiak Frantses Hizkuntzaren Gutuna (101. legea) hartu zuen, eta frantsesaren nagusitasuna ezarri zuen: Ipar Amerikan gehiengo frantsesa duen gizarte bakarra da Quebec. Erramunek hango egoera soziolinguistikoa gertutik jarraitzen du egun ere, bai harreman elektronikoen bidez bai eta Atlantikoaren beste aldean, "La Belle Province" aldean, noizean behinka egiten dituen egonaldien bidez ere.

Hizkuntza Ofizialen Lege kanadarrak, elebitasun ofiziala babestez gain, kanadar guztiei frantses edo ingeles elebakarrak izateko eskubidea ematen die. Eskubide hori Kanadako konstituzioan ere babesten da, ingelesezko eta frantsesezko ikastetxe autonomoak finantzatzen dituelako

hamar probintzietan zehar, Ozeano Atlantikotik Ozeano Pazifikoraino. Bestalde, Kanadako federalismoak era demokratikoan babestu izan du beti probintzietako alderdi politikoen mekanismo demokratikoen bidez Kanadatik erabat banantzea proposatzeko duten eskubidea; Quebecen, esaterako, independentzia nazionalari buruzko zenbait erreferendum egin dira (adibidez, 1980an eta 1995ean). Kanadako konstituzioak babesten duen hizkuntza-pluralismoa eta frantsesak Quebecen lortu duen babes instituzionala ondotoxoz ezagututa, Erramun Baxokek era argian eta sortzailean sortu ditu hizkuntza-politikak iparraldean euskara bultzatzeko. Frantzia gutxiengoaren hizkuntzen alde egiteko ingurune zaila izan arren, Erramun Baxokek euskara indartzeko lortzeko modukoak izan daitezkeen hizkuntza-politika errealistak sortzeko adimen-ahalegin handiak egin ditu etengabe, eta, horregatik, nazioarteko hizkuntza-plangile ausarta dela esan dezakegu. Frantziako estatuaren barruan hizkuntza-gutxiengoak bizi duten errepresio-egoeraren aldean, argi dago Camille Laurinen moduko hizkuntza-plangileek (101. legearen sortzailea) askoz ere errazago izan zutela frantsesaren alde egiteko; izan ere Quebecen biztanleen %82k zuen frantsesa ama-hizkuntza eta ia biztanleen %90ek zekien frantsesez! Ingurune linguistiko eta politiko zail eta nahasietan sortzen dira hizkuntza-plangile handiak, eta nire liburuan, gure goraiipamen eta mirespen osoa merezi dituen hizkuntza-plangile handi horietako bat da Erramun Baxok!

Erramun Baxok, euskaldun abertzalea izateaz gain, gonbidatzaile aparta da, eta, Renérekin batera, iparraldeko eta hegoaldeko hainbat eta hainbat euskalduni eta ez-euskalduni etxeko ateak ireki dizkie, bai eta Europa eta Amerika osoko lagunei ere. Hizkuntzaren aktibista eta intelektuala denez, etengabe idatzi izan du euskaraz eta frantsesez epemuga estu eta zorrotzen barruan. Hala ere, Erramunek pertsona atsegina eta adeitsua izaten jarraitzen du, eta elkarrizketa sutsuak eduki daitezke berarekin etxean otordu-garaian edota Milafrangatik Donostiara bidean edo Bilbotik Gasteizera bidean bileretara presaka zoazen heinean. Eskertzeak dira Erramunekin igaro ditudan une aberasgarri eta bizigarri horiek guztiak, eta espero dut gehiagotan bildu ahal izango dugula elkarrekin lagun-giroan datozen urteetan. ■

---

***Hizkuntza Ofizialen Lege kanadarrak, elebitasun ofiziala babesteaz gain, kanadar guztiei frantses edo ingeles elebakarrak izateko eskubidea ematen die.***

***Frantzia gutxiengoaren hizkuntzen alde egiteko ingurune zaila izan arren, Erramun Baxokek euskara indartzeko lortzeko modukoak izan daitezkeen hizkuntza-politika errealistak sortzeko adimen-ahalegin handiak egin ditu etengabe.***